AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP.KODEA COD.EXP.	**2025ZERL0003**

ESPEDIENTEA **EXPEDIENTE**	**ZERBITZUAK LEHIAKETA**
TITULARRA **TITULAR**	**AZKOITIKO UDALA**
TOKIA **LUGAR**	**AZKOITIA**

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

AZKOITIKO, AZPEITIKO ETA ZESTOAKO UDALERRIETAN KOKATURIKO IKASTETXE DESBERDINETAKO LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEI LOGOPEDIA ZERBITZUA ESKAINTZEKO PROZEDURA IREKIA BALIATUTA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN ORRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea hau da: **Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako udalerrietan kokaturiko ikastetxe desberdinetako lehen hezkuntzako ikasleei logopedia zerbitzua eskaintzea.**

2. ZERBITZUAREN BEHARRA

Egun arte, logopedia zerbitzua, hezkuntza sistemaren zerbitzu publikoen arretatik kanpo gelditzen diren mintzairako zailtasunak dituzten lehen hezkuntzako ikasleei zuzentzen zaie, honako tratamendu hauek eskaintzen direlarik:

- Dislalietatik eratorritako patologien tratamendua, haiek zuzentzeko bideak jarriz, hau da, fonema bakoitzaren emisioan parte hartzen duten artikulazio organoen kokapen eta/edo erabilera okerraren ondorioz fonema bat edo batzuk oker artikulatzetik datozenak.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS QUE REGIRÁN LA CONTRATACIÓN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE LOGOPEDIA A LOS/LAS ESCOLARES DE EDUCACIÓN PRIMARIA DE LOS CENTROS EDUCATIVOS RADICADOS EN LOS MUNICIPIOS DE AZKOITIA, AZPEITIA Y ZESTOA

1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto de este contrato es el siguiente: contratar **la prestación del servicio de logopedia dirigido/a a los/las escolares de educación primaria de los centros educativos radicados en los municipios de Azkoitia, Azpeitia y Zestoa.**

2. JUSTIFICACIÓN DEL SERVICIO

Hasta ahora, el servicio de logopedia se ha ofrecido a los/las escolares de enseñanza primaria con dificultades en el habla que quedan fuera de la atención de los servicios públicos del sistema de enseñanza, y concretamente se les ha ofrecido los siguientes tratamientos:

- Tratamiento de las patologías derivadas de las dislalias, es decir, de los problemas derivados de la incorrecta articulación de uno o varios fonemas debido a la mala colocación y/o al mal uso de los órganos que toman parte en la emisión de cada

- Lehen hezkuntzako ikasleen nortasunean eta eskolako emaitzetan nahasmenduak sor ditzaketen hizkera-akats larriak saihestu edo zuzendu.

Oro har, ikastetxeen esku-hartze pedagogikoaren helburua da haurren garapen fisiko, afektibo, sozial eta intelektuala sustatzea, hots, beren osoko garapena sustatzea. Haurren garapenaren funtsezko alderdietako bat komunikazioa eta lengoaia dira, eta beraz, lehentasunezkoa da esparru garrantzitsu horretan premiak eduki ditzaketen haur eskolaratuei beharrezko arreta ematea, eta hori garaiz egitea.

Ondorioz, Azkoitia, Azpeitia eta Zestoako udaletatik, komunikazio-arazoak dituzten haurrei ahotsaren berreziketarako, hitz egiteko, entzuteko eta adierazpide-moduetarako zerbitzuak eman nahi dira, baita lengoaia-premien diagnosi goiztiarra egiteko, eta lengoaia, mintzamen eta ahots-alterazioen banakako ebaluazio zein esku-hartzea egiteko zerbitzuak ere.

3. ZERBITZUA JASOKO DUTEN IKASLEAK

Azkoitia, Azpeitia eta Zestoako ikastetxeetan ikasketak egiten arituz hezkuntza-sistemaren zerbitzu publikoek emandako arreta-aukeretatik kanpo geratuko diren lehen hezkuntzako eta salbuespenezko kasuetan, haur hezkuntzako eskola-umeek jasoko dute zerbitzua.

4. HELBURUAK

1. Komunikazioa sustatu, erraztu eta indartzea.

fonema, ofreciendo opciones para su corrección.

- Evitar o corregir los problemas graves del habla que pueden llegar a provocar trastornos tanto en la personalidad como en los resultados académicos de los/las escolares de enseñanza primaria.

Las líneas generales de intervención pedagógica que caracterizan a los centros escolares pretenden contribuir al desarrollo físico, afectivo, social e intelectual de los/las menores, es decir, a su desarrollo integral. Una de las áreas fundamentales es la comunicación y el lenguaje, y es de primordial interés atender y tratar a su debido tiempo a las niñas y a los niños escolarizados/as que pudieran presentar necesidades específicas en esta área tan importante.

En consecuencia, desde los Ayuntamientos de Azkoitia, Azpeitia y Zestoa se pretende prestar el servicio de atención de reeducación de la voz, habla, audición y formas de expresión de niñas y niños que presenten dificultades en la comunicación, así como realizar una detección y diagnóstico precoz de las necesidades del lenguaje, además de una evaluación e intervención individualizada en las alteraciones del lenguaje, del habla y de la voz.

3. ALUMNOS/AS BENEFICIARIOS/AS DEL SERVICIO

Se dirige el servicio a aquellos escolares de educación primaria, y excepcionalmente de educación infantil, con dificultades en el área del lenguaje y quedan fuera de las posibilidades de atención de los servicios públicos del sistema educativo, y que cursan sus estudios en los centros escolares de los municipios de Azkoitia, Azpeitia y Zestoa.

4. OBJETIVOS

1. Favorecer, facilitar y potenciar la comunicación.

2. Tutoreekin koordinazioa ezartzea, gelan komunikazioa eta adierazpena sustatzeko.
3. Ahotsaren, mintzamenaren zein lengoaiaren esparruan eta lengoaiaren zein entzumen-arazoekin zerikusia duten ikasketa-arazo sistematikoen esparruan, giza komunikazio-arazoei aurre hartu eta horiek errekuperatu zein leheneratzea.
4. Haurraren antzemate eta diagnosi logopedikoa ezartzea.
5. Antzemandako arazoan zuzenean esku hartzea.
6. Lengoaiaren esparruan berariazko premiak dituzten haurren jarraipena egitea.
7. Gelako programazio egiteko orduan, irakasle-tutorearekin batera lan egitea, baita komunikazio-arazoen esparruan baliabide eta material bereziak bilatu, egokitu eta osatzeko ere.
8. Irakasleei eta familiei ahots, mintzamen, entzumen eta lengoaia-arazoen inguruan aholkularitza ematea.

2. Establecer la coordinación con los/las tutores/as para potenciar en el aula la comunicación y la expresión.
3. Prevenir, recuperar y rehabilitar los trastornos de la comunicación humana que pertenecen al área de la voz, habla, lenguaje y dificultades de aprendizaje sistemático relacionado con las alteraciones del lenguaje y la audición.
4. Establecer una detección y diagnóstico logopédico del/la menor.
5. Intervenir directamente en el problema detectado.
6. Hacer un seguimiento de los/las menores con necesidades específicas en el área del lenguaje.
7. Colaborar con el/la profesor/a tutor/a en la programación del aula, así como en la búsqueda, adaptación o elaboración de recursos y materiales específicos en el área de los trastornos de la comunicación.
8. Asesora a docentes y a familias sobre trastornos de voz, habla, audición y lenguaje.

5. ZERBITZUAK ETA EDUKIA

Enpresa esleipendunak memoria bat aurkeztu beharko du, eta bertan helburuak, metodologia, esku-hartzea eta tratamenduak zehaztu beharko ditu komunikazioaren, mintzamenaren, ahotsaren zein lengoaia-arazoen esparruan hezkuntza-premiak dituzten haurrei arreta emateko, baita lengoaia eta entzumen-asalduren inguruko ikaskuntza sistematikoa emateko ere.

Antolaketa arloko ondorioetarako, zerbitzua jasoko duten ikasleak talde txikietan banatuko dira, tratatu beharko diren disfuntzioen arabera, atentzio egokia bermatzeaz gain dauden baliabide eta bitarteko profesionalak eta ekonomikoak arrazionalizatzeko moduan.

Logopedian titulatutako langileek eman beharko dute kontratu honetako xedea den zerbitzua.

5. SERVICIOS Y CONTENIDOS

La empresa adjudicataria deberá presentar una memoria concretando objetivos, metodología, intervención y tratamiento a desarrollar para la atención a niñas y niños con necesidades educativas especiales en la comunicación, el habla, la voz y los trastornos de lenguaje, así como en el aprendizaje sistemático relacionado con las alteraciones del lenguaje y la audición.

A efectos organizativos, los alumnos receptores del servicio se distribuirán en grupos reducidos atendiendo a las características de las disfunciones a tratar, de forma que garantice la correcta atención a la vez que permita racionalizar los recursos y medios profesionales y económicos disponibles.

El servicio objeto del presente contrato será atendido por el personal titulado en Logopedia.

Logopedia-esparruko profesionalak esku hartu ahal izateko, lehenik eta behin, Azkoitia, Azpeitia eta Zestoan kokatutako ikastetxeetako psikopedagogiako taldeek horren aldeko txostena eman beharko dute, eta bertan adierazi beharko dute beharrezkoa dela Logopediako espezialistak haurrari arreta ematea.	La intervención por parte del/la profesional en Logopedia se realizará previo informe emitido por el equipo psicopedagógico de los centros educativos ubicados en Azkoitia, Azpeitia y Zestoa, en el que se indicará la necesidad de que el/la menor sea atendido/a por el/la especialista en Logopedia.
Edozein esku-hartze abian jarri baino lehen, enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du haur bakoitzaren diagnosi-ebaluazioa egiteko. Diagnosi-fase horren iraupena ezingo da hilabete bat baino gehiagokoa izan.	Antes de iniciar cualquier intervención, la empresa adjudicataria se compromete a realizar una evaluación diagnóstica de cada menor. La duración de esta fase de evaluación no podrá exceder de un mes.
Esleipendunak emango dien diagnosiak zehaztuko du tratamenduaren iraupena, haur bakoitzarentzako saio-kopurua zehaztuz.	La duración del tratamiento será determinado según el diagnóstico emitido por el adjudicatario, estableciéndose un número de sesiones para cada niña o niño.
Aipatutako ikastetxeetan horretarako erabiliko diren geletan eskainiko da zerbitzu hori.	El servicio se prestará en las aulas destinadas a tal fin en cada uno de los centros señalados.
Ikastetxeek zehaztutako eskola-egutegietara egokituko da zerbitzua, eta oporretan eten egingo da.	La prestación del servicio se adaptará a los calendarios escolares establecidos en los centros educativos y se suspenderá durante los periodos vacacionales.
Arreta jasotzen duten haurren tutoreei hiruhilekoan behin emandako zaie aholkularitza eta informazioa, banakako elkarrizketa bidez.	El asesoramiento e información a los tutores y a las tutoras de los/las menores tratados/as se realizará como mínimo una vez al trimestre, mediante entrevistas individuales.
Esleipendunak konpromisoa hartzen du, ikasturte amaieran, arreta emandako haur bakoitzari buruzko banakako txostena egiteko. Haur Hezkuntza amaitzean, hasiera-hasieratik haurrak jarraitutako tratamendu-prozesuaren xehetasunak ere jaso beharko ditu txosten idatzi horrek.	El adjudicatario se compromete a realizar, al finalizar cada curso escolar, un informe individual de cada menor atendido durante el curso escolar. Al concluir la etapa de educación infantil, el referido informe escrito deberá incluir también el proceso de tratamiento seguido por dicho menor desde su inicio.
Ikasturte osoan zehar eskainiko da zerbitzu hori.	El servicio se prestará durante todo el curso escolar.
Ikasturte bakoitza amaitzen denean, enpresa esleipendunak emandako zerbitzuaren txosten edo ebaluazioa aurkeztu beharko du Udal bakoitzean.	La empresa adjudicataria deberá presentar en cada uno de los Ayuntamientos una memoria o evaluación del servicio realizado a la finalización de cada curso escolar.

Enpresa esleipendunak, berak jarritako ordezkariaren bidez, Administrazio kontratatzailearengana agertu beharko du, gutxienez hiruhilabetero, zerbitzuaren jarraipen eta koordinazio bilerak egiteko. Bilera horiek kontratistak prestatu beharko ditu eta horietarako deialdia ere berak egin beharko du.

La empresa adjudicataria, en la persona de su interlocutor, deberá acudir a la Administración contratante con una periodicidad cuando menos trimestral, para celebrar reuniones de coordinación y seguimiento del servicio. Dichas reuniones deberán ser preparadas y convocadas por la empresa adjudicataria.

Zerbitzuaren finantzazioa egitasmoan partaide diren Udalen ekarpenen eta zerbitzua jasoko duten ikasleen kuoten bidez egingo da.

La financiación del servicio se realizará vía aportaciones de los ayuntamientos interesados y de las cuotas de los alumnos beneficiarios del servicio.

6. BALIABIDEAK

Enpresa esleipendunak zerbitzu hau garatu eta emateko beharreko giza baliabideak zein baliabide tekniko eta materialak eduki beharko ditu.

Giza baliabideei dagokienez, Logopedian modu profesionalean jarduteko beharrezko prestakuntza eta gaikuntza profesionala eduki beharko dute zerbitzuko profesionalek.

Materialari dagokionez, komunikazio-arazoen esparruan berariazko material eta baliabideak eduki beharko ditu enpresa esleipendunak.

6. MEDIOS

La empresa adjudicataria deberá disponer de los medios técnicos, humanos y materiales necesarios para el desarrollo y prestación del servicio.

Con respecto a los recursos humanos, los/as especialistas contarán con la cualificación y capacitación profesional necesaria para el desarrollo profesional de la Logopedia.

En relación al material, la empresa adjudicataria deberá disponer de materiales y recursos específicos en el área de los trastornos de la comunicación.

7. LAN EGUTEGIA

- Hezkuntza ikasturteak erabiliko dira lan programak egituratzekoan.
- Ikastetxe zein elkarlana behar den gainerako arloekin koordinatuta eta adostuta ezarriko da zerbitzua jorratzeko egun eta ordutegiak (formazioa zein aholkularitza).
- Ikasturte osoan zehar eskainiko da zerbitzu hori. Ikastetxe bakoitzak zehaztutako eskola-egutegira egokituko da zerbitzua, eta oporretan eten egingo da.

7. CALENDARIO LABORAL

- Se utilizarán los cursos educativos al estructurar los programas de trabajo.
- Los días y horarios para trabajar el servicio se establecerán en coordinación y en conformidad con los centros educativos y con el resto de ámbitos de colaboración necesarios.
- El servicio se prestará durante todo el curso escolar. La prestación del servicio se adaptará a los calendarios escolares establecidos en cada centro y se suspenderá durante los periodos vacacionales.

8.AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

8.DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

- Zerbitzuaren garapenean parte hartuko duten pertsona guztien kurrikulumak

- Proiektuaren memoria:
  - Marko teorikoa
  - Lan filosofia
  - Lan metodologia
  - Landuko diren jarduera guztien zehaztapena
  - Lan egutegia
  - Erabiliko den materiala
  - Ebaluaziorako adierazleak (kuantitatiboak zein kualitatiboak) eta egitasmoa
  - Aurrekontua

- Currículos de todas las personas que vayan a participar en el desarrollo del servicio

- Memoria del proyecto:
  - Marco teórico
  - Filosofía de trabajo
  - Metodología de trabajo
  - Especificación de todas las actividades que se tratarán en cada ciclo
  - Calendario laboral
  - Material a utilizar
  - Proyecto e indicadores (cualitativos y cuantitativos) de evaluación
  - Presupuesto

9.ZERBITZUAREN IRAUPENA

- Zerbitzuaren iraupena bi (2) urtekoa izango da. Hasiera 2025-2026 ikasturtearekin emango zaio.

- Zerbitzuaren jarraipena bermatu asmoz eta betiere eskumena duen organoak hala erabakiko balu, urtebeteko (1) bi (2) luzapen bat burutu ahalko lirateke.

9.DURACIÓN DEL SERVICIO

- La duración del servicio será de dos (2) años. Dándosele inicio con el curso escolar 2025-2026.

- Con el fin de garantizar la continuidad del servicio y siempre que el órgano competente correspondiente así lo decidiera, se podrían realizar hasta dos (2) prorrogas de un (1) año.

10. LIZITAZIO TIPOA ETA GEHIENEKO AURREKONTUA

Lizitazio tipoa, gehieneko izaerarekin, ondokoa da:

- 45,86€/zerbitzu orduko, kontzeptu guztiak, BEZa salbuetsita dago.

- Kilometrajeko dieta: 0,29€/km

Zerbitzuaren gehieneko urteko aurrekontua 57.327,27 € izango da, eta kopuru hori beherantz hobetu ahal izango dute lizitatzaileek euren eskaintzetan.

10.TIPO DE LICITACIÓN Y PRESUPUESTO MÁXIMO

El tipo de licitación, con carácter máximo, es el siguiente:

- 45,86€/por hora de servicio, por todos los conceptos, exento de IVA

- Dieta por kilometraje: 0,29€/km

El presupuesto estimado y máximo anual del contrato será de 57.327,27 € cantidad que podrá ser mejorada a la baja en sus ofertas por los licitadores.

11. LANAREN JABETZA

Zerbitzuaren ondorioz sortutako memoria txostenen eta bestelako barne-agirien jabetza intelektuala eta

11. PROPIEDAD DEL TRABAJO

La propiedad intelectual y explotación de los informes y de los distintos documentos internos

ustiapena, zerbitzua kontratatzen duten Udalenak izango dira.

Debeku hau betetzen ez bada, esleipenduna izango da hortik sortutako kalte eta eragozpenen erantzule.

generados a consecuencia del servicio serán de los Ayuntamientos contratantes.

Si esta prohibición no se cumple, la empresa adjudicataria será responsable de los daños y perjuicios a que ello diese lugar.

12. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Hizkuntza gaitasuna

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte. Horregatik, Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako ikastetxe desberdinetako lehen hezkuntzako ikasleei logopedia zerbitzu bateratua eskainiko dien enpresako langileek ahoz eta idatziz harremanak izango dituzte ikasle, guraso eta irakasleekin eta balorazio txostenak, memoriak, gurasoentzako jarraibideak, etab. Emango dituztenez, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila (3. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea) egiaztatu beharko dute.

Kontratua esleitu aurretik, egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,

12.REQUISITOS LINGÜÍSTICOS

Competencia lingüística

En sus relaciones con la administración o terceros, las personas empleadas por la empresa contratada deben garantizar, en lo que a sus competencias lingüísticas se refiere, unas condiciones similares a las que de hecho se exijan a la administración contratante. Por ello, el personal de la empresa contratada para prestar un servicio unificado de logopedia a alumnos y alumnas de educaciónprimaria de diferentes centros educativos de Azkoitia, Azpeitia y Zestoa mantendrán tanto relaciones orales como escritas con estudiantes, padres-madres y profesionales de la enseñanza y redactarán informes de valoración, memorias, directrices para las y los progenitores, etc., por lo que deberán acreditar el nivel de competencia C1 (Perfil lingüístico 3 o equivalente) del Marco Europeo de Referencia.

Previa a la adjudicación del contrato, la empresa deberá verificar que las personas encargadas de prestar el servicio poseen la competencia lingüística precisa.

Asimismo, en caso de que, una vez iniciado el contrato, se incorporen nuevas personas a prestar el servicio, deberán acreditar la competencia lingüística precisa.

La acreditación de la competencia lingüística podrá hacerse de alguna de la siguiente manera:

- La presentación de documentos que acrediten que las personas que prestarán el servicio cumplen con la competencia lingüística exigida, ó

- Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

- Tomando parte en las pruebas que con ese objeto realice la administración (la acreditación que se obtenga carecerá de valor en cualquier otra instancia).

Hizkuntza paisaia

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

Paisaje lingüístico

Los rótulos, avisos, señalizaciones y resto de comunicaciones de carácter general se harán mediante un pictograma, acompañado de un mensaje explicativo en euskera.

Si no resulta posible hacerlo mediante un pictograma, se harán en euskera cuando se trate de mensajes conocidos y comprensibles.

Si los dos casos anteriores no son posibles, se harán de forma bilingüe, dando prioridad al euskera, previa conformidad de la administración.

Hizkuntza erabilera herritarrekin

Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.

Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan,...) euskaraz egingo da.

Modu berean, era guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak…) euskaraz egingo dira. Herritarrak eskatzen duenean, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia

Uso con la ciudadanía

La atención a las personas usuarias se llevará cabo en condiciones lingüísticas idénticas a las que de hecho se exijan a la administración.

De conformidad con los criterios lingüísticos aprobados por la administración, la atención verbal con la ciudadanía (atención inicial, telefónica, contestadores, presencial, megafonía, reuniones, ...) se hará en euskera.

Del mismo modo, se harán en euskera cualquier tipo de notificaciones y comunicaciones (impresos, notas, avisos, horarios, facturas y otros documentos de tráfico). Cuando un ciudadano o ciudadana así lo solicite, se harán en euskera y castellano, dando prioridad al euskera.

La empresa contratada deberá garantizar que en la prestación del servicio los textos utilizados en euskera son correctos y adecuados. Para ello, los textos de amplia difusión o uso repetitivo se presentarán ante el Servicio Municipal de Euskera, que comprobará si son correctos o no;

balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

y en caso de que no lo sean, se requerirá su corrección por cuenta de la propia empresa.

Hizkuntza erabilera administrazioarekin

Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsulta...) euskaraz izango dira.

Uso con la administración

Las relaciones tanto verbales como escritas generadas en virtud de este contrato (contratos, facturas, informes, reuniones, consultas, etc.) de la empresa con la administración se harán en euskera.

Kultur teknikariak

Técnico de Cultura